

Javier Agirresarobe zine-argazki zuzendaria, HUHEZIn

2011/12/20

Euri dezente egin du Javier Agirresarobe gaztea Ikuska dokumental-sailean lanean hasi zenetik. Harrezkero Eibarko argazki-zuzendariak bide luzea egin du zinemagintzan. Hainbestekoa, zeren gaur egun Hollywood-en bizi baita, bere enpresa eta guzti: Santa Clara island. Hala ere, aprobetxatuta Gabonetarako Euskal Herrira itzuli dela, Mondragon Unibertsitateak Eskoriatzara ekarri zuen, Jakiunde akademiaren laguntzarekin.

Agirresarobek hiru film erabili zituen bere hitzaldi-mintegian, bere lanaz hitz egiteko: Mar adentro (Alejandro Amenabar), Vicky Cristina Barcelona (Woody Allen) eta The road (John Hillcoat). Lehenengoan bere lana izan zen ahalik eta itxurarik naturalena ematea filmari, nahiz eta horretarako lan gehiena dekoratuetan egin. Bigarrenarekin, ostera, alde batera utzi behar izan zituen konbentzio gehienak, usukoak Hollywood-en, Woody Allen oso bestelakoa delako, berezia. Eta hirugarren filmean, azaldu zuen zelan egin behar izan zuen burruka eguzkia erabat baztertze filmazioan, ispilatu nahi izan baitzuen Cormac McCarthy bere eleberrian deskribatzen duen giro apokaliptiko iluna.

Bi ordu eta erdi iraun zuen hitzaldi-mintegiak, baina inor ez zen bere aulkitik mugitu, halako interesez jarraitu baitzituzten denek Javier Agirresaroberen hitzak, anekdota bitxiz ziprztinduta.

